



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abuztuaren 25a

89. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboek eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko (2. or.).

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 8/2020 Foru Lege-dekretua onetsi du, abuztuaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitatean ohiz kanpoko neurriak onesten dituen COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko. Foru Lege-dekretua 2020ko abuztuaren 18ko 184. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea 2020ko abuztuaren 27ko Osoko Bilkuran eginen direla abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horrek ohiz kanpoko neurriak onesten ditu Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko. (10-20/DLF-00008).

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**8/2020 Foru Lege-dekretua,  
abuztuaren 17koa, zeinaren bidez  
ohiz kanpoko neurriak onesten  
baitira Nafarroako Foru  
Komunitatean COVID-19aren kasu  
positiboen igoerak eragiten duen  
arrisku bereziko egoerari  
erantzuteko**

I

2020ko martxoaren 11n, COVID-19 izeneko gaixotasuna dela-eta, Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoko larrialdi egoera deklaratu zuen, eta nazioarteko garrantzia eman zion.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Deklarazioak Estatuko lurralde osoari eragin zion, hasiera batean hamabost egun naturaleko epean, eta, ondoren, sei luzapen onartu ziren, Diputatuen Kongresuak baimenduta.

Alarma egoera luzatzen duen ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuak, 5. artikuluan, xedatzen du normaltasun berrirako trantsizio planean aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, dagozkion probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan alarma egoeran ezarritako neurriak ondoriorik gabe geratuko direla. Gainera, 6. artikulua araberak, autonomia erkidegoak dira erabaki dezaketena, osasun eta epidemiologia irizpideei jarraikiz, beren lurraldeetan 3. fasea gainditu dela eta, horrenbestez, "normaltasun berrian" sartuko direla.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoak, prebentzio neurriak hartzen ditu osasun krisiaren bukaera ofizialki deklaratzeko.

denera arte. Alde horretatik, autonomia erkidegoen eskumenen esku uzten du neurriak ezartzea.

Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratu zen, eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurri batzuk eman ziren, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Aipatutako erabakiaren 5. puntuan xedatzen denez, bertan ezarritako prebentzio neurrien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingen da, unean uneko epidemiologia eta osasun egoerara egokitzen direla bermatzeko.

Geroago, uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretua onetsi zen, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren; neurri bereziak ezarri ziren bertan, gai hauei buruz: gaueko aisialdia, ikuskizun publikoetan eta josteta jardueretan aritzen diren zenbait establezimendu ixteko ordutegiak mugatzea, elkarte gastronomikoak eta peñak, mahai bakoitzean edo mahai-multzo bakoitzean egon beharreko gehieneko pertsona kopurua, eta bizikidetzako ospakizunak eta aisialdia espazio publikoetan.

## II

COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgeteak ezartzen dituen ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 5. artikulua, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 65. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, xedatzen du jarduteko planak eta estrategiak ezartzen ahalko direla osasun larrialdiei aurre egiteko, eta, horretarako, osasun publikoko jarduketa koordinatuak baliatuko direla, COVID-19 eritasunaren esposizio arriskuaren eta transmisio komunitarioaren mailak kontuan hartuta, errege lege-dekretu horretan jasotako jarduerak betetze aldera.

Agindu hori aplikatuz, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2020ko abuztuaren 14an, erabaki zuen deklaratzeko neurri osasun publikoko jarduketa koordinatuak direla, COVID-19aren kasu positiboen igoerak dakarren arrisku bereziari erantzuteko, gaueko aisialdiari dagokionez; horren ondorioz, erabaki zen ixtea diskotekak, dantzalekuak eta kopak hartzeko tabernak, zuzeneko musika emanaldiak izan nahiz ez, ostalaritzako establezimenduetan, jatetxeetan eta terrazetan, pertsonen arte-

ko 1,5 metroko distantzia bermatzea barrako zerbitzuan eta mahaien edo mahai-multzoen artean, eta kopurua mugatzea (10 pertsona gehienez mahai edo mahai-multzo bakoitzean), eta, azkenik, ezarri zen establezimenduak 1:00ean ixtea beranduenez, eta bezero berririk ez onartzea 00:00etatik aurrera.

Zentro soziosanitarioetan, erabaki zen PCR probak egitea egoitzak diren zentro soziosanitarioetako egoiliar berri guztiei, baimenetatik eta oporretatik itzultzen diren langile guztiei eta langile berriei. Aurreikusi zen, halaber, bisitak mugatzea, egoiliar bakoitzak bisita bakarra izan dezan, prebentzio neurri zorrotzenak betez eta gehienez ere ordubetez egunean; horrekin batera, zentro soziosanitarioetako egoiliarren irteerak ere mugatu ziren. Orobat, hainbat neurri ezarri ziren jendetza biltzen duten ekitaldi eta jardueretarako: osasun agintaritzak arriskuaren ebaluazioa egin beharko du eta baimena eman, hala erabakitzen badu. Bestetik, erabaki zen PCR bidezko baheketak egitea berariazko talde batzuetan, eta alkoholaren kontsumoa, baimendu gabekoa, bai eta bide publikoan baimenduta ez dauden beste jarduera batzuk ere, galarazteko kontrolak areagotzea.

Hartutako azken neurria erretzeko debekua da bai bide publikoan, bai aire zabalean, pertsonen artean gutxienez bi metroko distantzia gordetzez dagoen.

Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2020ko abuztuaren 14an xedatutakoaren barruan, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko, osasun publikoko neurri koordinatuak onesten direnez, komeni da indarrak gabe uztea gaueko aisialdiaren arloan uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuaren I. tituluan jaso ziren neurri bereziak. Horretarako arrazoia da uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuaren I. tituluan jaso ziren neurriek gaueko aisialdiari dagokionez ezartzen dituzten mugak ez direla Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Osoko Bilkurak, osasun publikoaren arloko jarduketa koordinatuaren ildotik eta egungo egoera epidemiologikoaren ondorioz, deklaratu dituen neurriak bezain murriztaileak.

Une honetan, Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren datuen arabera, egoera epidemiologikoari dagokionez, 2020ko uztailaren 8tik aurrera eguneroko intzidentzia handitzen joan da progresiboki, batez ere Iruñerrian eta Tuteran inguruan. Azken 14 egunetan, intzidentzia metatua 188,17koa izan da, eta azken 7 egunetan

108,9koa; autonomia erkidegoetan lehendabiziko postuetan dago Nafarroa, eta agerraldi gehienak eremu sozialean, gaueko aisialdikoan eta familian gertatzen dira. Egoera honetan, justifikaturik dago premia bereziarekin abian jarri beharra aipatutako neurriak, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde-arte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez onetsitakoak eta gorago aipatzen direnak, COVID-19aren kutsapen gehiago ekiditeko eta Nafarroako osasun publikoa babesteko.

### III

Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren lehen artikuluan xedatzen da ezen, osasun publikoa babesteko eta haren galera edo narriadura eragozteko, administrazio publikoetako osasun arloko agintariek, beren eskumenen esparruan, lege horretan aurreikusitako neurriak hartzen ahalgo dituztela, urgentziazko edo premiazko osasun arrazoiek hala eskatzen dutenean.

Bestalde, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak 26.1 artikuluan adierazten duenez, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat baldin badago, edo zentzuz jokatuta susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariek egokitzat jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, enpresak edo haien instalazioak ixtea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatuz jotzen diren beste guztiak ere. Ildo beretik doa Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 54.1 artikulua.

Egungo egoera dela eta, ezinbestekoa da Nafarroan hartzea Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearte Kontseiluaren Osoko Bilkurak gai hauei buruz erabakitako neurriak: gaueko aisialdia, ostalaritza eta jatetxeak, zentro soziosanitarioak, jendetza biltzen duten ekitaldiak eta jarduerak, PCR bidezko baheketak talde berariazkoetan, baimenik gabeko alkohol kontsumoa bide publikoan eta tabakoaren eta parekoen kontsumoa.

### IV

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 51.3 artikuluan ezartzen da ezen dedikazio eskusiboko osagarria jasotzen duten funtzionarioek ezin izanen dutela aparteko ordurik sorrarazi. COVID-19 koronabirusak eragindako pandemiaren osasun krisiaren ondorioz, produktibitate aldakorreko osagarri bat ordaindu zaie Osa-

sunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako zenbait langileri, pandemia dela-eta izan duten dedikazio bereziagatik; alabaina, beste langile batzuen kasuan, beste departamentu batzuei atxikitako oinarritzko postu homologoetan egonik ere, ezin izan zaie produktibitate-osagarri hori ordaindu; izan ere, beren lansariaren araudiaren arabera, ezin zaie osagarri hori aplikatu. Era berean, ezin izan dute kasuan kasuko konpentsazioa jaso egindako aparteko ordu mordoarengatik, beren lanpostuak dedikazio eskusiboko osagarria esleitua izateagatik. Horregatik, egoera hori arintzeko eta pandemiak eragindako salbuespenezko egoera kontuan hartuta, uste da konpentsatu egin behar direla pandemiaren ondorioz egindako aparteko orduak.

### V

#### Neurriak tributuen esparruan

Laugarren xedapen gehigarrian, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauketa harmonizatzen da abuztuaren 4ko 27/2020 Errege Lege-dekretuarekin –horren bidez hartu ziren toki entitateei aplikatu beharreko ohiz kanpoko eta premiazko neurri finantzazioak–, bat etorritz Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onetsi zuen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 32. artikuluan xedatutakoarekin.

Esparru horretan, eta 2020ko urriaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko tasa aplikatuko da COVID-19ari aurre egiteko osasun-materialaren barne-entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, baldin eta material horren hartzaileak entitate publikoak badira, irabazi-asmorik gabekoak, eta ospitaleak. Neurri hori apirilaren 29ko 4/2020 Foru Lege-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautu zen 2020ko uztailearen 31ra arte, foru lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak onetsi baitziren koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Neurri hau aplikagarri zaien ondasunen zerrenda ere eguneratu da, 2020ko apirilaren 23tik aurrerako ondorioekin.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboek, hala badagokio, zergaren araudiaren arabera, foru lege-dekretu honek indarra hartu aurretik jasanzarazi edo ordaindutako balio erantsiaren gaineko zergaren zuzenketa eginen dute.

Bestalde, aldatu da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren mailaz mailako kuotaren salbuespena aplikatu ahal izateko salgaien garraio publikoaren eta autobuseko bidaiarien garraio diskrezionalaren sektorearen-

tzako luzamendua formalizatzeko eskrituretan (uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-dekretuan arautzen da).

Horregatik guztiagatik, erabiliz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak eta Osasuneko kontseilariak proposaturik, eta bat etorri Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko abuztuaren hamazazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin,

DEKRETATZEN DUT:

## ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege-dekretu honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean ohiz kanpoko neurriak hartzea COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.

## I. TITULUA

### Ohiz kanpoko neurriak gaueko aisialdirako, ostalaritzarako eta jatetxeetarako, bai eta bide publikoan baimendu gabeko alkohol kontsumorako eta elkarte gastronomikoen eta peñen jarduerarako ere

**2. artikulua.** Gaueko aisialdiko establezimendu jakin batzuetarako itxiera eta mugak.

1. Debekatuta dago dantzalekuen eta diskoteken lizentzia duten establezimenduen jarduera, zuzeneko musika emanaldiak izan nahiz ez.

2. Taberna berezien eta ikuskizunetarako kafe-tegien lizentzia duten establezimenduen kasuan, jardun ahalko dute irekitzeko ordu orokorretik (13:00ak) goizeko 01:00a arte, foru lege-dekretu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzetan.

3. Establezimendu horiek udal baimen bereziak baldin badituzte irekitzeko ordua aurreratzeko –bat etorri ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegi orokorra ezarri zuen irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuaren 6.2 c) artikuluan xedatutakoarekin–, toki entitateak baimendutako ordutegian eta baldintzetan jardun ahal izanen dute, foru dekretu honen 3. artikuluko okupazio-baldintzen arabera.

**3. artikulua.** Tabernen, kafetegien, jatetxeen eta terrazen jarduera duten establezimenduak itxeko ordutegia mugatzea.

1. Tabernen, kafetegien, jatetxeen eta terrazen jarduera duten establezimenduek 1,5 metroko distantzia bermatu beharko dute barrako zerbitzuan. Era berean, gutxieneko distantzia hori bera bermatuko da mahaien edo mahai-multzoen artean, eta 10 lagun biltzen ahalko dira gehienez mahai edo mahai-multzo bakoitzeko. Erabiltzen diren mahaiek edo mahai-multzoek egokiak beharko dute izan, kontuan harturik zenbat pertsona izanen diren, bermatzeko pertsonen arteko segurtasun-tartea errespetatzen dela.

2. Artikulu honetan aipatutako establezimenduak 1:00ean itxiko dira beranduenez, establezimendua husteko lanak barne, eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera.

**4. artikulua.** Josteta aretoak, ziberzentroak, bingo aretoak, joko aretoak eta kirol aretoak.

Josteta aretoak, ziberzentroak, bingo aretoak, joko aretoak eta kirol aretoak 1:00ean itxiko dira beranduenez, establezimendua husteko lanak barne, eta ezin izanen da bezero berririk onartu 00:00etatik aurrera.

**5. artikulua.** Elkarte gastronomikoen eta peñen jarduera mugatzea.

Ezin izanen dira erabili elkarte gastronomikoak eta peñak 1:00etik aurrera, establezimendua husteko lanak barne.

**6. artikulua.** Baimenik gabeko alkohol kontsumoa bide publikoan.

1. Debekatuta daude alkohola kontsumitzeko bizikidetzatopaketak eta aisialdiko ospakizunak (“kale-zurruta” eta antzekoak) bide publikoan, parkeetan eta plaza publikoetan eta jendea dabilen beste toki batzuetan.

2. Segurtasun indar eta kidegoek kontrolatuko dute artikulu honetako 1. apartatuan ezarritako debekua, eta dagozkion zehapenak ezartzen ahalko dira, aplikatzekoa den araudi indardunaren arabera.

## II. TITULUA

### Ohiz kanpoko neurriak egoitzak diren zentro soziosanitarioen arloan

**7. artikulua.** PCR proba diagnostikoak egitea egoitza soziosanitarioetan.

Egoitza soziosanitarioetan, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen eremuetan, PCR probak egiten zaizkie egoiliar berri guztiei, 72 ordu lehenago gehienez. Era berean, PCRak egiten zaizkie 14 egunetik gorako baimenetatik eta opprraldietatik itzultzen diren langile guztiei, bai eta lanean hasten diren langile berri guztiei ere.

**8. artikulua.** Egoitza soziosanitarioetan bizi diren pertsonen bisitak eta irteerak.

1. Adinekoen eta desgaitasunen bat duten pertsonen zentro soziosanitarioetan bizi diren pertsonak bisitatzeko, pertsona bakarra sartuko da egoiliar bakoitzeko, prebentzio neurri zorrotzenak betez eta gehienez ere ordubetez egunean. Bermatuko da egoiliarrei egunean zehar egiten zaizkien bisitak mailakatuta izanen direla.

2. Artikulu honetako 1. apartatuan xedatutakoa salbuetsiko da egoiliarrek bizitzaren azken prozesuan daudenean.

3. Ahalik eta gehien mugatuko dira adinekoen eta desgaitasunen bat dutenen zentro soziosanitarioetan bizi direnen irteerak.

### III. TITULUA

#### Ohiz kanpoko neurriak jendetza biltzen duten ekitaldi eta jardueretan

**9. artikulua.** Baimena jendetza biltzen duten ekitaldietarako.

1. Jendetza biltzen duten ekitaldiak egitea aurreikusten bada, ezinbestekoa izanen da Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak alde aurretik arriskuen ebaluazioa egitea, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordearen irizpideei jarraikiz.

2. Ebaluazio hori egin ondoren, organo eskudunak baimenduko du, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak nahitaezko txosten loteslea egin ondoren.

### IV. TITULUA

#### Ohiz kanpoko neurriak osasun arloan

**10. artikulua.** PCR bidezko baheketak berriazko taldeetan.

Agerraldi epidemikoa izanez gero, osasun agintariak baheketak eginen dituzte PCR proben bidez arriskuan dauden eta egon daitezkeen taldeetan, hala nola zentro soziosanitarioetako egoiliarren artean, transmisio komunitarioa duten auzoetan, ikastetxeetan, kaltetutako etxebizitzabloketan, kolektibo kalteberetan eta osasun agintaritzak egokitzen jotzen dituen guztietan.

**11. artikulua.** Tabakoaren eta parekoen kontsumoa.

Debekatuta dago bide publikoan edo aire zabalean erretzea, baldin eta ezin bada gorde 2 metroko gutxienezko tartea pertsonen artean. Muga hori bera aplikatuko da tabakoa arnasteko

beste edozein gailu, ur-pipak, pipak edo antzekoak erabiltzeko.

### V. TITULUA

#### Neurri bereziak langileria arloan

**12. artikulua.** Aparteko orduak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileek, dedikazio eskusiboko osagarria esleituta duen oinarritzko lanpostu bat betetzen badute eta aparteko zerbitzuak egin badituzte COVID-19 koronabirusaren osasun krisia dela-eta, aparteko ordu gisa konpentsatu ahal izanen dituzte, haiei aplikatu beharreko araudiaren arabera.

2. Egindako aparteko orduen diru konpentsazioa bidezkoa den kasuetan, aparteko orduak egin diren departamentu edo erakunde autonomo bakoitzak horien justifikazio-txostena eta zerrenda zehatza bidaliko dizkio Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari, eta horiek ordaintzeko aginduko da Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emandako foru aginduaren bidez.

3. Konpentsazio hori bateraezina izanen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileentzat ezarritako COVID-19 produktibitate-osagarri bereziarekin.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehen xedapen gehigarria.** Eraginkortasuna.

I. titulutik IV.era bitarte ezarritako neurriak indarrean egonen dira egoera epidemiologikoaren arabera, harik eta berariaz indarrrik gabe uzten diren arte.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Osasun agintarientzako gaikuntza, osasunaren eta osasun publikoaren araudiarekin bat.

Gaikuntza ematen zaie Osasun Departamentuko titularrari eta Osasun Zuzendaritza Nagusiko titularrari behar diren aldi baterako neurri osagarriak har ditzaten lokalizatuak dauden agerraldien hedapena saihesteko. Neurri horiek, betiere, proportzionalak izanen dira, eta ezinbestekoa den denboran aplikatzekoak.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Bere horretan mantentzen dira Osasuneko zuzendari nagusiak abuztuaren 5ean emandako 598/2020 Ebazpenaren ondorioak, zeinaren bidez prebentzio neurri batzuk ezarri baitziren gaueko aisialdiaren esparruan, indarra izan zezaten Nafarroako Foru Komunitate guztiko herrietako festak izanen liratekeen aldian, salbu eta diskoteken eta dantzale-

kuen lizentzia duten establezimenduen jarduerarako, itxita egonen baitira, eta 1. c) punturako, Nafarroako Foru Komunitate osoan oro har debekatzeko baita.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, aplikatu beharrekoa COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan.

Ondorioak izanik 2020ko apirilaren 23tik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2020ko urriaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko tasa aplikatuko da foru lege-dekretu honen eranskinean zehaztutako ondasunen entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, baldin eta hartzaileak eskubide publikoko entitateak, klinikak edo ospitaleak badiira, edo izaera sozialeko entitate pribatuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.3 artikulua aipatzen dituenak. Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrrik gabe uzten dira uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuaren I. titulua eta xedapen gehigarriak (foru lege-dekretu horren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartu ziren COVID-19 koronarabirusaren osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren), bai eta foru lege-dekretu honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

**Azken xedapenetako lehena.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatzea.

Aldatu egiten da apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 35.I.B).26 artikulua hiru

garren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

Mailaz mailako kuota hori aplikatzen salbuesita gelditzen dira, orobat, hipoteka mailegu eta kredituen luzamenduak eta hipoteka bermerik gabeko errentamenduen, maileguen, leasingeko eta rentingeko luzamenduak formalizatzeko eskriturak, turismoaren sektorearentzako luzamendu hipotekarioa aplikatzearen ondorioz gertatzen direnean (uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuaren 3. artikulutik 9.era bitartekoetan arautua; errege lege-dekretu horren bidez presako neurriak hartu ziren erreaktibazio ekonomikoari eta enpleguari laguntzeko), eta salgaien garraio publikoaren eta autobuseko bidaiarien garraio diskrezionalaren sektorearentzako luzamendua aplikatzearen ondorioz gertatzen direnean (uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-dekretuaren 18. artikulutik 23.era bitartekoetan arautua; horren bidez erreaktibazio ekonomikorako neurriak hartu ziren, COVID-19ak garraioaren eta etxebizitzaren arloan izandako eraginari aurre egiteko).

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, bat etorri Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatua ezarritakoarekin.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía

**ERANSKINA****Laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren ondasunen zerrenda.**

	<b>Produktuaren izena</b>	<b>Ondasunaren/produktuaren deskripzioa</b>	<b>NC kodea</b>
1	Gailu medikoak.	Zainketa intentsibo eta azpi-intentsiboetarako arnasgailuak.	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako tresnak). Fluxu bereizleak.	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiarako beste tresna batzuk, oxigeno dendarak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintz bidezko oxigenazioa.	ex 9019 20 00
2	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00 ex 8528 52 10
3	Ponpak.	– Kanpo nutriziorako ponpa peristaltikoak – Sendagaien infusiorako ponpak – Hurrupatze ponpak.	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak.	ex 9018 90 50
4	Hodiak.	Hodi endotrakealak;	ex 9018 90 60
			ex 9019 20 00
		Hodi esterilak.	ex 3917 21 10 a ex 3917 39 00
5	Kaskoak.	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailerako CPAP/NIV kaskoak.	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzailerako maskarak (NIV).	Aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak, aireztapen ez-inbaditzailerako.	ex 9019 20 00
7	Hurrupatze sistemak/makinak	Hurrupatze sistemak.	ex 9019 20 00
		Hurrupatze elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorrak.	– Intubazio kitak. – Aiztur laparoskopikoak.	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskullerako kitak.	ex 9018 90 84



11	Monitorizazio estazioak - Pazienteak monitorizatzeko tresnak – Elektrodiagnostikorako tresnak.	Monitorizaziorako estazio zentralak, zainketa intentsiboetarako. Pultsu oximetroak.	ex 9018 90 ex 9018 19
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak. – Elektrodiagnostikorako tresnak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	– Aurpegiko maskarak, oihalezkoak, iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoki gabekoak, barne direla maskara kirurgikoak eta ehundu gabeko ehun-materialez fabrikaturiko aurpegiko maskarak, erabili eta botatzekoak. – Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas maskarak, agente biologikoen aurka babesteko iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoak dituztenak. Hemen sartzen dira begiak ere babesten dituzten maskarak edo aurpegiko ezkuak.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00
		Gomazko beste eskularru batzuk.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak.	ex 6116 10
		Ehunezko eskularruak, puntuzkoak ez direnak.	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak.	– Aurpegirako babesak, erabili eta botatzekoak nahiz berrerabilgarriak – Aurpegirako babesak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babeserako betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90
19	Lan jantziak. Mantal iragazgaitzak – askotariko motak – tamaina desberdinak. Erabilera kirurgiko/medikorako babes jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, barne daudela inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Erabilera anitzeko arropa (barne daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		Puntuzko ehunez egindako jantziak, 5903, 5906 edo 5907 partidetakoak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Puntuzko ehunez egindako beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgiko/medikorako jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, izan nahiz ez inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Barne daude ehundu gabeko materialezko jantziak («spun-bonded»).	ex 6210 10

		Babeserako beste jantzi batzuk, kautxuztaturiko ehunez eginikoak, edo inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak).	ex 6210 20
			ex 6210 30
			ex 6210 40
			ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Txanoak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak.	ex 6505 00 90
		Bestelako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuak/estuak nahiz ez.	ex 6506
22	Termometroak.	Likidodun termometroak, zuzenean irakurtzekoak.	ex 9025 11 20
		Barne daude termometro kliniko estandarrak, beira barnean merkurioa dutenak.	ex 9025 11 80
		Termometro digitalak, edo termometro infragorriak, neurketa kopetan egitekoak.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa.	Xaboiak eta eskuak garbitzeko prestakinak eta produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboa).	ex 3401 11 00
			ex 3401 19 00
		Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak.	ex 3401 20 10
		Xaboa beste forma batzuetan.	ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboiaz bestelakoak) – Katioi-agenteak.	ex 3402 12
		Produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak azala garbitzeko, likidoak edo krema gisakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboidunak edo ez.	ex 3401 30 00
24	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	ex 8479 89 97
25	Disoluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren %80 edo gehiago denean.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatu, kontzentrazioa edozein dela ere.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren %80 baino gutxiago denean.	ex 2208 90 91
			ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa, %3an, litrotan.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa, ontziratu gabe.	
	Hidrogeno peroxidoa, prestakin desinfektatzaileetan gaineratua gainazalak garbitzeko.	Eskuen desinfektatzailea.	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	

27	Larrialdiko garraiorako tresnak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Ohatilak eta orgatxoak, ospitale edo klinika barnean pazienteak eramateko.	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak.	ARN erauzgailuak.	9027 80
29	COVID-19aren probak egiteko kitak / Proba diagnostikoetan erabilitako tresnak eta gailuak.	– Koronabirusaren proba diagnostikoa egiteko kitak. – Diagnostikorako errektiboak, erreakzio immunologikoetan oinarrituak. – Isipuen ekipoak eta birusa garraiatzeko bitartekoak.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Diagnostikorako errektiboak, polimerasaren kate-erreakzioan (PCR) oinarrituak (azido nukleikoaren proba).	ex 3822 00 00
		In vitro diagnostikorako laborategi klinikoetan erabiltzen diren tresnak.	ex 9027 80 80
		Laginak hartzeko kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipuak.	Guata, gaza, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko artikulua.	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak jartzeko materiala.	Ospitaleetako oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpadendak.	ex 3926 90 97
32	Sendagaiak.	– Hidrogeno peroxidoa, sendagai gisa aurkeztua. – Parasetamola. – Hidroklorokina/klorokina. – Lopinavir/Ritonavir – Remdesivir. – Tocilizumab. – Ruxolitinib.	ex 3003 90 00 ex 3004 90 00 ex 2924 29 70 ex 2933 49 90 ex 3003 60 00 ex 3004 60 00 ex 2933 59 95 ex 2934 10 00 ex 2934 99 90 ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 2933 59 95
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2 – propanola (alkohol isopropilikoa).	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2 – propanola (alkohol isopropilikoa).	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak.	ex 2909

36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz eratorriak).	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salzilikoa.	Azido salzilikoa eta gatz eratorriak.	ex 2918 21 00
38	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak.	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak nahiz ez.	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak nahiz ez.	ex 5603 11 10 a
			ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoa, medikoa edo higienikoa duten artikuluak, txikizkako salmentakoak ez direnak.	Paperezko ohe-estalkiak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa, kalibraturik eta graduaturik egon nahiz ez.	ex 7017 10 00
			ex 7017 20 00
			ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, Thorpe hodiko fluxu-neurgailua oxigenoa emateko, 0-15 L/min.	Thorpe hodiko fluxu-neurgailuak osagai hauek dauzka: sarrera- eta irteera-atakak, erregulagailua, balbula eta neurketa-hodi koniko gardena. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluximetro (fluxu-neurgailu) arruntaren bertsioak (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatukoa, fluxu-maila espezifikotarako egokiak.	ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81
43	CO2aren detektagailu kolorimetrikoa, arnasa botatzekoa.	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina. Behin bakarrik erabiltzekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak.	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3701 10 00
		Biribilkietan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3702 10 00